



Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak bertan behera utzi dituzte, eta estatuko mugak itxi

Urumea bailaran, berriz, neurri berriak hartu dituzte Hernaniko eta Goizuetako Udalek ere, Koronabirusaren aurrean; eta udal zerbitzuak ez dituzte aurrez aurre eskainiko.

URUMEA KORONABIRUSA

Aurreneko laneguna zen atzokoa, Espainiako Gobernuak osasun alarma deklaratu zuenetik. Eta errepideetan trafikorik bazen ere, nabari zen beherakada, herrietako kaleetan bezala. Erosketak egitera edo laneko joan-etorrietara mugatu ziren gehien ateraldiak, eta hainbat komertzioetan, ilara egin zuten kanpoan, pilaketak saihestu eta tartekak mantentzeko.

Egunez egun ari dira erabaki eta neurri berriak hartzen erakundeak, COVID-19 edo Koronabirusak eragindako egoeraren bilakaera ikusita. Atzokoa, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen, bertan behera geratu direla Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, apirilaren 5ean egitekoak zirenak. Hala adostu dute alderdi politikoen (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Elkarrekin Podemos-IU, PP eta Equo bildu ziren atzo), eta jakinarazi dute, data berria zehaztuko dutela egungo alarma egoera noiz bukatzen den arabera. Azaldu dutenez, orain ez da posible hauteskundeak egitea, «osasuna eta bozkatzeko eskubidea behar bezala bermatuz».

Espainiako Gobernuak, berriz, mugak itxeko erabakia hartu zuen atzo. Gaur gauerdetik, kontrolak berrezarri dituzte estatuko mugetan, eta bakarrik utziko diete sartzen espainiar naziotasuna dutenei, Espainian



Jendea ilaran zain eta distantzia errespetatuz, atzo, Hernaniko Pineda harategiaren kanpoaldean.

bizi direnei, edota ezinbesteko arazoirenen bat egiaztatzen dutenei.

Lokal asko itxita eta dendek ordutegi mugatua, Goizuetan Goizuetan ere hartu dituzte neurri berriak, Koronabirusaren zabalkundeari aurre egiteko. Horrela, azaldu dute, udal bulegoetan ez dela aurrez aurreko

Komertzioetako langileak errespetatu eta oharrei kasu egiteko eskatu du Goizuetako Udalak.

arretarik egingo, eta itxita egongo direla herriko lokal gehienak: jubilatuen elkarteak, Xaltoa eskola, Belako tailerra, Mutu, Izkina, Oxeguarda eta Zubiondo tabernak, Umore Ona elkarteak, Zubimuxu aterpetxea, kirol instalazioak, parkeak, Goxali, Irati eta Kirbil ileapaindegia, eta eliza.

Eta era berean, ordutegi mugatu du, zabalik egongo diren denda eta zerbitzuentzat: janari dendak, harategia eta estankoa 19:30ak arte egon daitezke zabalik, eta okindegia 11:30ak arte. Zabalik egongo dira, baita ere, farmazia, bankua eta gasolindegia, eta martxan garraio eta posta zerbitzuak.

Udalak eskatu du, errespetatzeko komertzioetako arauak eta langileak, eta kasu egiteko ateetako oharrei. Eta deia luzatu du, arrisku taldeak babestu eta erantzukizunez eta arduraz jokatzeko. «Elkar zaintzen badugu, xamurragoa izango da garai gogor hau».

Udal zerbitzuak telefonoz eta postaz bakarrik, Hernaniko Hernaniko Udalak, berriz, Krisi Mahaia osatu zuen atzo, osasun alarma «udal langileen antolaketa eta zerbitzuetan izaten ari den eragina kudeatzeko asmoz». Bertan hartu zuten parte alkateak eta zinegotzi batek, antolakuntza eta pertsonal bu-

ruak, informatikariak, lan prebentzioko teknikariak, langileen komiteko lehendakariak, eta segurtasun batzordeko langileen ordezkaririk batek.

Atzoko bileran erabaki zuten, ahal bezainbeste mugatuko dituztela modu presentzialean egin beharreko lanak, «langileen zein herritarren osasuna babesteko». Horrela, erabaki zuten udaletxeko zerbitzuek ez dutela aurrez aurreko arretarik eskainiko, eta telefonoz eta posta elektronikoz bakarrik erantzungo dutela. Udalaren webgunean daude, harremanetarako kontaktuko guztiak, eta Herritarren Harrera Zerbitzuaren telefonoa honakoa da: 943 33 70 00.

Era berean, jakinarazi dute martxan mantenduko direla igogailu publikoak, baina ezinbesteko kasuetan bakarrik erabiltzea gomendatu dute: «derri-gorrezkoa den kasuetan, banaka sartu, eta laguntza behar duen pertsonaren bat badoa, gehienez ere binaka», adierazi dute.

Eta garraio publikoari dago-

kionez, zehaztu dute Hiribusak bere zerbitzua murriztuko duela, eta udako ordutegia hartuko duela. Hortaz, 08:00etan hasiko da, eta 13:00etan abiatuko da Hiribusaren azkeneko txanda, Elkano kaletik. Guztira, bost buelta egingo ditu, 08:00etan, 09:00etan, 10:30etan, 12:00etan eta 13:00etan abiatuta, Elkano-tik. Ordutegi osoa ikusgai dago, interneten: www.hernani.eus.

Bestalde, komun publikoak itxi egingo dira.

Zamalanen ordutegia, 24 ordura zabaldua

Hernaniko Udalak jakinarazi du, baita ere, Udaltzaingoen ez dituela kontrolatuko ordu eta erdiko TAO guneak, «jendea kalera atera ez dadin kotxea mugitzera». Eta zamalanentzat gordetako guneen ordutegia, 24 ordura zabaldu dute, oinarrizko hornidura bermatzeko. Kaxkoko zamalanen ordutegia, berdin mantenduko da.

Lapurretak, egoera baliatuz

Osasungintzatik ohartarazi dute, bestalde, egoera baliatzen ari direla hainbat, etxeetan lapurretak egiten saiatzeko. Medikuek eta erizainen izenean deitzen dute etxeetara, esanez etxean neurriak hartu eta desinfektatzeko lanak egitera dijoazela, baina lapurreta egiteko aprobetxatzen dute hori. **K**

ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN*	NAFARROAN**
26 positibo berri	274 positibo guztira
89 positibo guztira	2 hildako
5 hildako	62 ospitalizatuta
28 ospitalizatuta	*Atzo 14:00etan **Atzo 12:30etan

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, martxoaren 23ra arte: kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarteak Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIJO:

- / Kontratua: sei hilabetetarako.
- / Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:

- / Urumea bailara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.
- / Publizista lanetan esperientzia.
- / Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
- / Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzalaberna@gmail.com

DORRONSORO
OHINDEGIA

Ogi egin berria beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jailegutan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkooan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jailegutan: 7:00-14:00

EGURDIA	GAUR Goizean euria egin dezake oraindik, baina ateri eutsiko dio eguerditik aurrera. Laino asko izango dira zeruan, eta arratsaldean joango dira gutxitzen, pixkanaka. Temperatura maximoek gora egingo dute pixka bat: Min.9° / Max.14°	BIHAR Giro eguzkitsua nagusituko da bihar, eta tenperatura ere gora egingo du nabarmen. Goizean goiz lainoak agertuko dira, baina eguerdirako garbituko du. Arratsaldean, baliteke bero-lainoak sartzea. Min.9° / Max.20°	DOBE ET EUSKARA ELKARTEA	LAGUNTZAILEAK	Hernaniko Udala	Asparragoko Udala	Donostia	GOZUEKANO UDALA	ARANOKO UDALA
	TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) UDALTAINGOAK: 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) DYA: 943 464622				AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 Gauzez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738 Goizueta: Nagusia 64 948 514353	HERNANI UDALA	GOZUEKANO UDALA	ARANOKO UDALA	

Familia laguntzarik ez dutenen eskura, DYArekin giza talde osoa

Gipuzkoako DYAk erabaki du, arrisku gehien duen populazioari lagunduko diola, erosketak edota beste edozein gestio eginez.

URUMEA DYA

Koronabirusaren krisiak eragin dako «osasun-larrialdiaren aurrean», Gipuzkoako DYAk erabaki du bere «giza talde osoa» jartzea, «arriskuan dagoen babesik gabeko populazioaren eskura». Zehazki, pertsona horiek dira haien profilarengatik (adinekoak edota gaixotasunen bat dutenak) egoera honetan kalera atera behar ez dutenak, baina laguntza eman diezaien seniderik ez daukatenez, kalera ateratzea behartuta egon daitezkeenak.

Haien egoera ikusita, lema egokitu du DYAK, eta bere egin *#GeldituEtaLagundukoDizugu* traola, laguntza eskaintzeko: «gure lema dioen moduan, Gipuzkoako DYAk 46 urte darrazazki gelditzen eta laguntzen; baina oraingoan lema hori egokitu dugu, gelditzen direnak arriskuan dauden pertsona horiek izan daitezkeen», adierazi du.

Pertsona horiei lagunduko die DYAK, eta bere «baliabide guztiak eta giza talde osoa» jarriko du haien eskura: «boluntario prestatuak eta koordinatuak jarri nahi ditugu, pertsona horiei farmaziako botikak ekar-

Telefonoz deitu behar da, DYArekin laguntza eskatuz: 943 46 46 22

tzeko, erosketak egiteko, edota arriskuren bat ekar dezakeen beste edozein gestio egiteko», nabarmendu du.

Horretarako, telefonoa jarri dute, laguntza behar duten pertsona horien eskura: 943 46 46 22 telefono zenbakira deituta bidertuko dituzte eskaera guztiak.

«Denon artean, eta beti ere osasun arloko agintarien jarraibideei kasu eginez, egoera honi aurre egitea lortuko dugu», adierazi du Gipuzkoako DYAK.

Adinekoen egoitzetan positibo ematen dutenak artatzeko, gune berria Donostian

Arrisku taldeekin lotuta, beste erabaki bat hartu zuen atzo Gipuzkoako Foru Aldundiak, Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin koordinatuta: Donostiako Matia kaleko Gurutze Gorriaren baliabide-anitzeko zentroa bideratzea, Gipuzkoako adinekoen egoitzetan Koronabirusean positibo eman eta arnasketa-urritasun moderatu edo larria duten pertsonen arretara.

Azaldu dutenez, zentroak 120 plaza ditu, eta «foru sareko osasun dotazio handiena duen egoitza da». Bertako egoiliarrek lurraldeko beste egoitza batzuetan kokatuko dituzte, eta aurrez aurretik, «gune soziosanitario berri bat» izango da, «osasun larrialdi honek izan ditzakeen ondorioei aurre egiteko gai izango dena».

Dena den, oraingoz ez dago konfirmatutako kasurik, Gipuzkoako adinekoen egoitzetan, eta prebentzio neurri gisa hartu da erabakia, transmisioa haunditu dela eta, osasun sistemaren «kolapsoa ekiditen laguntzeko». **K**

«Irudimena pizteko erronka», etxean pasa beharreko orduak arintzeko

Udaberriko argazki erronka jarri du martxan Urumea Herriguneak, eta datorren astelehenera arte bidali daitezke.

HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Espainiako Gobernuak agindutako konfinamenduaren ondorioz, etengabeak dira etxean sartuta pasa beharreko orduak arintzeko proposamenak, mota guztietakoak. Eta horietako bat da Urumea Herriguneak zabaldu duena: udaberriko argazki erronka jarri du martxan, eta dagoeneko bidali daitezke argazkiak, datorren astelehenera arte, argazkierronka@gmx.com helbide elektronikora.

«Etxean sartuta pasa behar ditugun egun hauek, erabili ditzagun irudimena pizteko! Uste baino argazki gehiago atera di-



Mugikorrarekin atera daitezke argazkiak, eta irudimena lantzea da helburua.

tzakegu etxean. Erronka aprobeztatu eta atera monotoniatik!, luzatu dute gonbitea.

Hamar gai zehaztu dituzte argazkietarako, baina jakinarazi dute, ez dela beharrezkoa guztietan parte hartzea, eta argazkien kalitatea ere ez dela garrantzitsua, mugikorrarekin atera daitezkeela: «edonork hartu dezake parte. Helburu bakarra da aisialdi modu desberdinak sustatzea. Beraz, animatu!».

Hauek dira emandako gaiak:

kontaktua, kolektiboa, zaintza, gauza bitxiak, udaberria, kaosa, ezjakintasuna, hezkuntza, elkarbizitza, eta harremanak. Ez da izenik eman behar, eta irabazlerik ere ez da egongo. Bidalitako argazki guztiekin, bilduma bat osatzea da asmoa.

Era berean, nabarmendu dute gai berriak proposatu daitezkeela, eta argazkiak beharrean, olerkiak edota beste edozein sorkuntza bidali nahi duenak ere, bidali ditzakeela. **K**

Bat egin du Hernaniko Udalak, Koordinadora Feministaren mezuarekin

Ohar baten bitartez, Udalak «argi» adierazi nahi izan du, «gure herrian ez direla onartzen jarrera eta eraso matxistak».

HERNANI UDALA

Martxoaren 7ko gauean, Hernani errugbi taldeko jokalaria bat atxilotu zuen Ertzaintzak, herrian, eraso sexistak egotzita; eta horren ondorioz, jokalaria taldetik kanpo uztea erabaki zuen errugbi elkarteak.

Gertaera salatu zuen Hernaniko Koordinadora Feministak ere, komunikatu batean: «nazkatuta gaude emakume izate hutsagatik jasaten ditugun erasoez. Hernanin, gure kale eta

tabernetan jasaten ditugu erasoak», adierazi zuen.

Hori horrela, Koordinadora Feministaren komunikatuarekin bat egin du Hernaniko Udalak ere, ohar baten bitartez; eta «argi» adierazi nahi izan du, «gure herrian ez direla onartzen jarrera eta eraso sexistak».

Udalak bere babesa adierazi die erasotutako emakumei, eta laguntza eskaini die, «behar dutenerako». Era berean, aditzera eman du, errugbi elkartearekin harremanetan jarri dela, eta «elkarlanean sexu jazарpen eta sexu arrazoiengatik kasuetarako protokoloa egiteko konpromisoa» hartu dutela. Horrela, Udalak nabarmendu du, protokoloa osatzeak ekarriko duela, «indarkeria matxistaren gaia lehen lerroan jartzea». **K**

Haur antzerkirako sarreren dirua bueltatuko dute, Biteri berriro irekitzean

HERNANI ANTZERKIA

Joan den larunbatean ziren eskaintzekoak, Biteri kultur etxean, *Hansel eta Gretel* haurrentzako antzezlanak. Baina koronabirusaren eraginez, bertan behera geratu zen, eta Hernaniko Udalak jakinarazi du, sarrera zeukatenei dirua bueltatuko dietela, Biteri berriro irekitzen dutenean. Bitartean, sarrerak gorde beharko dituzte.



JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaietan izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Koronabirusa

Gure jarduera eta beldur kolektiboa. Zentzua dauka gure bizitzak paralizatzeak, zer gertatzen den ikusi arte?

Gertatuko dena izango da, neurri handi batean, egoera berri honen aurrean hartzen dugun jokabidearen emaitza. Larunbatean ikusi ahal izan genuen, Hernaniko supermerkatuen batean, jendea ero moduan erosten (edo hobeto esanda pilotzen) janaria eta elikagaiak... hurrengo egunean hornidura desagertuko balitz bezala.

Benetan da erreakzio justifikatua, beldur kolektiboari zentzua aurkituta ere? Benetan gertatuko gara etxean, ez dakigu zerren zain?

Gu, Kaxkohobetuko nekazekinak ez. Guk jarraituko dugu gure erritmo geldiezinak, gauetako desordenaren, zarataren eta zikinkeriaren kontra, gure bizilagunei eta lagunei pozak emateko.

Ion Azpiazu Goñi Kaxkohobetu

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**